



Etorkizuna da

PIXOIHAL BERRERABILGARRIEN
SUSTAPENERAKO KANPAINA

Zorionak, parekorik ez duen esperientzia baten aurrean zaudete.

Seme-alabak izatea eta haiek haztea eta heztea, esperientzia pertsonal zein unibertsal ahaztezina da.

Belaunaldiz belaunaldi modu naturalean gertatu da, eta halere, norberarentzat ezberdina da aldiro.

Erditzea etorkizuna ikustea baita, biharko pozari arnasa ematea. Gaurko haurra ikusten da, baina baita etorkizunean izango den pertsona ere.

Jakin badakigu ezinbestekoak dituela eta dituzuela lehen hilabetetako prozesu honetan pixoihalak. TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEAN zuen errealitatearen jakitun gara, baina, ondo ezagutzen ditugu, erabili ahala botatzeko kontsumo ohiturek, baita pixoihalen kasuan ere, dituzten ondorio ekonomiko eta ekologikoak.

Hori dela-eta, ekimen berri bat jarri dugu indarrean eta guraso zaretenongana zuzentzen gara, hurrengo asteetan martxan jarriko dugun pixoihal berrerabilgarrien ekimen honen berri izan dezazuen. Zure interesekoa delakoan, ondorengo egunetan egingo diren bilera hauetara gonbidatu nahi zaituztegu:

Ekainak 15ean, astelehena, 17:00etan Zizurkilen (Atxulondon) eta 19:00etan Andoainen (Udaletxean).

Ekainak 16an, asteartea, 17:00 etan Alegin (Kultur Etxean) eta 19:00etan Anoetan (Udaletxean).

Ekainak 18an, osteguna, 17:00etan Ibarran (Udaletxean).

Ekainak 20an, larunbata, 10:30etan Tolosan (Kultur Etxean).

Hitzaldiotan, pixoihal berrerabilgarriak zer diren, funtzionamendua nola duten eta bere abantailak zeintzuk diren azalduko dizuegu. Horretaz gainera, TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEAK abiarazi duen kanpainara lotzera animatuko zaituztegu, zeinaren bidez, eskualdeko 50 familiari pixoihal berrerabilgarriak merkatuan duten prezioaren erdian eskuragarri jarriko zaizkien, hauen kontsumo ohitura aldatu dadin gure eskualdean. Ekainaren 25ean jakinaraziko zaie familiei onuradunak direla.

Zure interesekoa izan eta bileretan ikusiko garelakoan, agurtzen gara.

Informazio gehiago: 606076514 · info@tolosaldea.org
(Tolosaldeko Mankomunitatea)



Etorkizuna da

CAMPAÑA DE FOMENTO
DE PAÑALES REUTILIZABLES

Felicidades, estáis ante una experiencia incomparable.

Dar a luz, ver el crecimiento de vuestros hijos e hijas y ser las figuras representativas en su educación en los primeros meses es siempre inolvidable.

Esta experiencia es natural y universal, y a su vez, personal con cada hijo o hija.

Dar a luz es ver el futuro: vemos el niño y la niña que son en este momento, pero también la persona que será dentro de unos años.

Desde la MANCOMUNIDAD DE TOLOSALDEA sabemos que durante los primeros meses de vida de vuestro hijo o hija, los pañales serán un elemento indispensable, pero también somos conscientes del problema ecológico y económico que tenemos con la gestión de estos en lo que respecta a la recogida selectiva.

Por ello, nos dirigimos a vosotros y vosotras, con el objetivo de presentaros un programa de pañales reutilizables que pondremos en marcha en las semanas siguientes. Creemos que es de vuestro interés, y por ello, os invitamos a las reuniones que se llevarán a cabo en vuestros municipios:

15 de junio, lunes, a las 17:00 en Zizurkil (Atxulondo) y a las 19:00 en Andoain (Ayuntamiento).

16 de junio, martes, a las 17:00 en Alegi (Casa de Cultura) y a las 19:00 en Anoeta (Ayuntamiento).

18 de junio, jueves, a las 17:00 en Ibarra (Ayuntamiento).

20 de junio, sábado, a las 10:30 en Tolosa (Casa de Cultura).

En estas reuniones se explicará que son los pañales reutilizables, como funcionan y cuales son sus ventajas. En ese sentido, se podrá inscribir en el programa, que desde la MANCOMUNIDAD DE TOLOSALDEA se pondrá en marcha, para facilitar a 50 familias un kit con los pañales reutilizables a la mitad del precio de mercado, para así, fomentar su uso. Se hará saber a las familias beneficiarias el 25 de junio.

Esperando que sea de vuestro interés y nos veamos en las reuniones, nos despedimos.

Más información: 606076514 • info@tolosaldea.org
(Mancomunidad de Tolosaldea)